



SAILBURUA
LA CONSEJERA

Hezkuntza komunitateko kide agurgarriok,

Atzo, otsailak 27, Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Mahaia eratu zen, koronabirusaren aurrean Jaurlaritzaren jardunbideari modu koordinatuan aurre egiteko. Hezkuntza Saila ere partaidea duen mahai horren helburua da, munduko osasun-alerta honek sortutako egoera etengabe eguneratuta edukitzea, Euskadin ager litezkeen balizko kasuen aurrean eskuragarri dauden baliabide guztiak partekatzea, eta modu koordinatuan jardutea.

Eusko Jaurlaritzatik lasai egoteko deia berresten dugu, eta erne egotea osasun-zerbitzu profesionalak eskaintzen ari diren jarraibide eta gomendioen aurrean.

Horrela bada, etengabe eguneratutako informazioa izateko eta herritarrei oro har zuzendutako gomendioak jarraitu ahal izateko, esteka honetara jo behar duzue:

<https://www.euskadi.eus/koronabirus-berriaren-aurrean-euskadin-jarduteko-informazioa-eta-gomendio-orokorrak/web01-a2gaixo/eu/>

Aldian behin gune hori kontsultatzea gomendatzen da. Esteka horretan, azalpen-bideo labur bat eta informazio-kartel bat daude, PDF bertsio inprimagarrian. Mezu honetan ere erantsita doaz horiek. Ikastetxe guztietan jarri behar dira, ondo ikusteko lekuan, koronabirusari aurrea hartzeko oinarrizko gomendioak ematen baitituzte.

Aipaturiko kartelak inprimatu ditzakezue dagoeneko eta, beraz, ahalik eta lankidetzan handiena eskatzen dizuegu.

Horrez gain, datozen egunetan kartel horiek erreferentziazko zuen Berritzegunean egongo dira eskuragarri, ikastetxe guztietan jartzeko.

Bideoa zein azalpen-kartela hezkuntza-komunitatean ahalik eta gehien zabaltzea eskatzen dizuegu.

Adeitasunez, 2020ko otsailaren 28an.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Cristina Uriarte Toledo
Hezkuntzako Sailburua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	
I.E.S. BURDINIBARRA B.H.I.	
Data Fecha	-- 2 MAR. 2020
SARRERA-ENTRADA	
ZKIA./Nº	27